

PASAI ANTZO / Marrazki eta pintura lehiaketa, abian

Liburutegiaren ekimena 4-14 urte arteko haurrentzako da, eta izena emateko azken eguna hilaren 24a da.

Urko Etxebeste

Antxoko liburutegiak Gabonetako XLIII. Marrazki eta Pintura Lehiaketa antolatu du. 4-14 urte arteko hurrek aurkez ditzakete lanak, eta izena emateko muga hilaren 24an dela jakinarazi dute antolatzaileek. Lanak liburutegian uzteko azken eguna, abenduaren 1a da, goizez edo arratsalde. Bost taldetan banatuko dituzte artista gazteen lanak: 4 urtekoak; 5-6 urtekoak; 7-8 urtekoak; 9-11 urte bitartekoak eta 12-14 urte bitartekoak. Pasaiaiko ikastetxe edo ikastoletan ikasten ari diren hurrek, eskola horietan eman dezakete parte hartzeko izena. Pasaiaikoak izan eta udalerritik kanpo ikasten ari direnek, aldiz, azaroaren 24a baino lehen eman beharko dute izena, Hamarretxeta kalean dagoen liburutegian bertan, 16:15etik 19:45ra bitartean.

Sariak ematerako orduan, epaimahaiak talde bakoitzeko hiru lan aukeratu dituzte. Pintura eta artearen munduan adituak diren pertsonak osatuko dute epaimahaia. Hauek hartuko duten erabakia behin betikoa izango da. Lanek kalitate edo maila nahikorik ez badute, saria hutsik uzteko ahalmena izango dute epaimahaiko kideek. Gainera, lehiaketan parte hartzearekin batera, bertako oinarriekin bat egiten dela esan dute antolatzaileek.

Sarien banaketa jendaurrean egingo da, liburutegian bertan. Aldez aurretik jakinaraziko dute noiz izango den sari banaketa hori. Horrez gain, irabazleen izenak prentsa eta irrati bidez publikoki jakinaraziko direla iragarri dute Antxoko liburutegitik. Hartara, lehiaketan jasoko diren lan guztiekin, urtero bezala erakusketa jarriko dute Kultur Etxean.